

AZKUNA ZENTROAREN GALERIA MEDIATEKAK ULISES 2.0 ERAKUSKETA INAUGURATU DU

- *Ulises 2.0*-k erakusketan jasotako lanak (2008) eta Zubietxe elkarteak eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok batera argitaratutako izen bereko katalogo-liburuaren lagina da.
- *Ulises 2.0*-n 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren pertsonak parte hartu dute, leku desberdinetatik abiatutako bidaia zail horri buruzko elkarrizketak osatzeko.
- Erakusketa honek ilustrazioko 20 panel bikoitz ditu, eta arteak eta sorkuntza artistikoak munduari begiratzeko, bizitzeko eta bizipenak partekatzeko duten zeregina erakusten du.
- Migratzaileek egindako lan bakoitza ilustratzaile profesional batek bertsiionatzen du, eta horien artean Paco Roca, Manuel Bartual, Raquel Alzate, Sonia Pulido, Lola Lorente edo Javier de Isusi bezalako profesionalak daude.
- Urtarrilaren 28ra arte bisitatu ahal izango da, sarrera librearekin.

(Bilbo, 2023ko urriaren 25a) Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao, Bilboko Udalaren Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroak, *Ulises 2.0*, Galeria Mediatekaren erakusketa berria aurkezten du.

Atzo egin zen inaugurazioan, **Itziar Urtasun** Jaietako Zinegotzi eta Bilboko Udaleko Kultura Zinegotzi Ondokoak, **Fernando Pérez** Azkuna Zentroko Zuzendariak eta **Izaskun Rekalde** Zubietxe Elkarteko Zuzendariak parte hartu zuten.

Ulises 2.0-k erakusketan jasotako lanak (2008) eta Zubietxe elkarteak eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok batera argitaratutako *Ulises 2.0* katalogo-liburua

aurkezten ditu. Bertan, 13 herrialdetan jaio eta 25 hiritan bizi diren pertsonen parte hartu zuten, leku desberdinetatik abiatutako bidaia zail horri buruzko elkarrizketak osatzeko.

Ilustrazioek prozesu osoa jorratzen dute: beren herrialdea uzteko erabakia hartzen denetik, harrerako gizartean integratu arte; eta bere aniztasun osoan erakusten dute, migratzera bultzatzen duten arazoiei, migratzailearen profilarri, genero-berezitasunei eta bidaiaren faseetan dauden arazoei dagokienez.

Horrela, **20 ilustrazio-panel bikoitz dituen erakusketa honek** arteak eta sorkuntza artistikoak munduari begiratzeko, bizitzeko eta bizipenak partekatzeko duten eginkizuna erakusten du. Gainera, egoera pertsonal, bizi eta sozial desberdinetatik datozen artistak migrazioek suposatzen duten dramarekin konektatzeko gai direla islatzen du.

Migratzaileek egindako lan bakoitza, ilustratzaile profesional batek bertsionatzen ditu. Horrela, izen hauek parte hartzen dute *Ulises 2.0*-n: **Moses Danel Jonas // Leticia Ruifernández; Abdellah Chadli // Leandro Alzate; Amadu Balde // Pepo Pérez; Bezaid Djillali // Manuel Bartual; Bezaid Djillali // Paco Roca; Blaise Batje // Lidia Peyret; Ditshidi Ndombe // Juanjo Sáez; Ebenezer Rhule // Javier De Isusi; Blaise Batje // Fidel Martínez; Mahmoud Salah Mahmoud // José María Ken Niimura; Mustapha Aouidat // Helena González Sáez; Nykita Tibabishev // Raquel Alzate; Omar Erraji // Sonia Pulido; Serkan Biçe // Sanvi; Sori Gayigo // Ander Sarabia; Sori Gayigo // Jali; Ridouane Ouardighe // Lola Lorente; Demba Cande // David Rubín; Ridouane Ouardighe // Alberto Vázquez; eta Bezaid Djillali // Sagar Fornies.**

Horrela, *Ulises 2.0*-k aukera ematen du antzemateko, hasieran hain bizitza desberdinak dituzten bi artista gai direla elkar ulertzeko, batez ere bi pertsona direlako. **Erakusketa urtarrilaren 28ra arte bisitatu ahal izango da, sarrera librearekin.**